



JON BERNAL ETXANIZ

Mariaren Lagundia Ikastolako
ikasle bergararra



GOIAZ! 2018

Lanbide Heziketaren Azoka
Apirilaren 17an eta 18an
Kulturaten, Arrasaten

  [goiazdebagoiena](#)



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguneko
eta Lurralde Orekako Departamentua

DEBAGOIENEKO LANBIDE HEZIKETAKO ESPERIENTZIAK

GAUR EGUN:

Mendekotasun egoeran dauden pertsoneri arreta egiteko erdi mailako heziketa zikloa ikasten. Lehenengo mailan.

IBILBIDEA: DBHtik dator.

Nola heldu zinen Lanbide Heziketara?

DBHtik batxilergora pasatu nintzen, baina ikusi nuen hura ez zela nahi nuena eta laga egin nuen.

Eta zergatik aukeratu zenuen Lanbide Heziketa? Eta bereziki pertsonen zaintzarekin lotutako ikasketak?

Nire asmoa zen haur hezkuntza edo hezkuntzarekin lotutako zerbait ikastea, baina erdi-mailan horrelakorik ez dagoenez inguruan, pertsonen arretarekin lotutako hau aukeratu nuen.

Ze asmorekin heldu zenion Lanbide Heziketari?

Hasiera batean, erdi-mailako ziklo bat egitera etorri nintzen, ondoren goi-mailakoa egin nahi nuelako. Baina orain konturatu naiz pertsonen zaintzaren arlo hau gustatzen zaidala, eta lanerako ere balioko didala.

Ze ikasgai mota daukazue?

Nola zaindu pertsonak, lehen laguntzak, elikadura, gizarte trebetasunak, etxean nola egin garbitasuna, telelaguntza, eta abar. Pare bat ikasgai izan ezik, gainontzekoak praktikoak dira.

Lanbide Heziketa aukeratu zenuenean gurasoek eta ingurukoek ulertu zuten?

Hasiera batean batxilergoa bukatzea nahi zuten, baina berehala konturatu ziren neurri handi batean motibazioa zela falta zitzaidana, eta ordutik bai, asko lagundu didate. Orain oso gustura etortzen naiz eskolara.

Eta hau bukatutakoan ze asmo daukazu?

Hasiera batean, lana aurkitzen badut arlo honetan, lanean hasiko naiz, eta horrekin batera ikasten jarraitzeko asmoa ere badaukat; agian Gizarte Integrazioa, hemen bertan.